

BILARKO UDALA

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, udal aguazil lanpostuaren izena, zerbitzu anitzetako langile izenera egokitzeko izapideetan plazari.

Alkatearen 2023ko azaroaren 29ko 69/2023 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduko 16an ALHAOn (144. zk.) argitaratu dira, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko martxoaren 29ko BOEn (75. zk.).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeitau egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

Ebazten dut:

Lehenengoa. Onestea udal aguazil lanpostuaren izena, zerbitzu anitzetako langile izenera egokitzeko izapideetan Bilarko Udalean plazaren bat (hautaketa prozesuan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoa) onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Izen-abizenak	NAN	Onartua/Baztertua	Arrazoa (1)	Puntuen autobalorazioa
ANTONIO GAINZARAIN HERCE	1*5*5**7*B	Onartua		100
UNAI GOIKOETXEA ELORRIAGA	**87*9*3R	Onartua		70,50

(1) Baztertutako arrazoiak: eskaerarik ez dago (A), eskaera epez kanpo egin du (B), eskaera osatu gabea eta epearen barruan zuzendu gabea da (C), tasa ez du ordaindu (D), atzera egin du (E)

Bigarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredia jasotzen dituen.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren balorazioa aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsioa aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsioa ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal

izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtoa ezestekoa bada.

Seigarrena. Esandako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileetako kide hauek izendatzea:

	Titularra	Ordezkoa
Epaimahaiburua	Pablo Martinez de Arbuló Echevarria	Alexander Rodríguez López
Bokala	Vanessa Domínguez Casal	M ^a del Carmen Rojo Pitillas
Bokala	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
IVAPeko ordezkaria	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano
Idazkaria	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina

Zazpigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta udalaren web orrian ere <https://elvillar-bilar.eus/index.php/es/>

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtoak batera jartzerik. Aurrekoetz gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurto ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaiak prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundean.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berriaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zortzigarren oinarria):

- NAN/AIZ
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak
- Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
- Gidabaimena (DGT)
- IT txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:
),

prozedurari dagokionez, honako hau ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua araber, **ez nago** eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen **aurka**.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen **aurka egiten dut**:
 - Titulu akademikoa
 - Euskarako hizkuntza eskakizuna
 - IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria
 - Gidabaimena (DGT)
 - IT txartelen ziurtagiriak
 - Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak
 - Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak

Aurka egiteko arrazoiak:

.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....

.....(e)koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak

(NAN/AIZ:.....),

erakundearen..... deialdiari dagokionez,

honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua

erabiliko dut, egun honetan lortua:

.....(e)koren(a)

Sin.:

Bederatzigarrena: Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten den hurrengo bileran.

Bilarren, 2023ko azaroaren 29an

ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Enrique Perez Mazo